**SALA ZIGOITIA ARETOA** (Zigoitiko Zentro soziokulturala – Centro sociocultural de Zigoitia)

# ZIGOITIA

## PROGRAMAZIO KULTURALA
## PROGRAMACIÓN CULTURAL

ENERO
MAYO
**2018**
URTARRILA
MAIATZA



ORGANIZA
ANTOLATZAILEA

Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala

**SALA ZIGOITIA ARETOA**

### URTARRILAK 13 ENERO. LARUNBATA / SÁBADO - 19:00

**ANTZERKIA / TEATRO**
**DETRITUS TEATROA: "CONFIESO QUE HE FINGIDO"**

Batetu doktorea psikoterapeuta sexuala da, eta, bere ustez, denok egiten ditugu itxurarik ez egitearen itxurak. Hala ere, errealitatean, mundu guztiak egiten ditu itxurak, baita eremurik pribatuenean ere. Doktoreak, kontsultara datozenei, hutsik egiten ez duen baliabide bat eskaintzen die, orgasmoen itxurak egiteko modua birziklatzeko. Eta bekatutik libre dagoena, etor dadila bekatuak egitera.

*La doctora Batetu, psicoterapeuta sexual, parte de la base de que tod@s fingimos que no fingimos, pero la realidad es que todo el mundo finge. Ella, pone a disposición de quien acuda a su consulta, un recurso infalible para reciclarse, en el socorrido recurso de fingir orgasmos. Y quien esté libre de pecado, que venga a pecar.*

**Helduak, 16 urtetik aurrera** / Personas adultas, a partir de 16 años
**Gaztelaniaz** / Castellano.

**16 urtetik 18 urtera** / De 16 a 18 años: **3 €**
**18 urtetik 60 urtera** / De 18 a 60 años: **5 €**

### URTARRILAK 14 ENERO. IGANDEA / DOMINGO. 11:30 - 13:30

**TAILERRA / TALLER**
**PANTA RHEI: "Nere gorputza, nire ahotsa, nire historioa"**

**6 urtetik 10 urtera** / de 6 a 10 años.
**Kartela ikusi** / Ver cartel específico.

### URTARRILAK 20 ENERO. LARUNBATA / SÁBADO - 19:00

**ANTZERKIA / TEATRO**
**ADOS TEATROA: "ZAPATILLA GORRIDUN MUTIKOA / EL MUCHACHO DE LAS ZAPATILLAS ROJAS"**

"Zapatila gorridun mutikoa" lanak proposatzen duen istorioan, ustez mutikoei gustatu behar zaizkien gauzak gustatzen ez zaizkion mutiko bat ezagutuko dugu. Nahiago du loreak biltzea, margotzea,



sokasaltoan aritzea, ganbarako gauza zaharrekin mozorrotzea eta rock and roll izar bat balitz bezala kantatzea. Urteak joan ahala, gaztetxo gozo eta ameslari bat bihurtuko da; geroago, heldu egingo da, maitasunarekin egingo du topo, eta, azkenean, zahartu egingo da. Orduko, nahikoa barre, sufrimendu, maitasun, malko eta amets bizi izango ditu. "Zapatila gorridun mutikoaren" asmoa honakoa da: aniztasuna gure gizarteko aberastasun gisa ulertzea.

*La historia que "El chico de las zapatillas rojas" propone es la de un niño al que no le gusta hacer las cosas que supuestamente les gustan a los chicos… Él prefiere coger flores, pintar, saltar a la comba... Con el paso de los años, se convertirá en un adolescente dulce y soñador, más tarde será un adulto, encontrará el amor y llegará a la vejez. Habrá reído, sufrido, amado, llorado y soñado. Con "El chico de las zapatillas rojas" trataremos de ayudar a entender la diversidad como elemento enriquecedor de nuestra sociedad.*

**Adin guztiak, 6 urtetik gora** / Todos los públicos, a partir de 6 años.
**Testu barik** / Sin texto.

**18 urtetik behera eta 60 urtetik gora** / Menores de 18 años y mayores de 60 años: **5 € - 18 urtetik 60 urtera** / De 18 a 60 años: **8 €**

### OTSAILAK 2 FEBRERO. OSTIRALA / VIERNES - 19:00

**KONTZERTU LITERARIOA (gazte sortzaileak) / CONCIERTO LITERARIO (jóvenes creadores - creadoras)**
**"Isturitzetik Etiopian Barrena". BEÑAT GOITIA**

Ikuskizuna Beñat Goitia gasteiztarrak sortutako musika, literatura eta zinearen uztartze bat da. Isturitzetik Etiopiarako, desparadisurako, deserturako, finean, heriotzerako bidaia egingo duen pertsonaia bederatzi zirkulutan zehar murgilduko da, azken eztanda jasan arte. Musikaren atalean, Adrian Puck DJ gasteiztarraren elektronika gordinak lagunduko ditu Beñat Goitiaren gitarra sesio intimoak. Zineman, Aitor Zarzuelo Ibon Esparzaren meneko argazki zuzendaritzak Arantzazuko elurrezko desertu profetikoan kokatuko du pertsonaia, iluntasunaren ilunean desagerrarazi arte.

*Confluencia de música, literatura y cine, un espectáculo creado por el vitoriano Beñat Goitia. Un viaje desde Isturitz hasta Etiopía, un viaje al desierto, un viaje hacia la muerte a través de nueve círculos, hasta la última explosión. En el apartado musical, acompañará a la guitarra intimista de Goitia la electrónica del DJ gasteiztarra Adrian Puck. En cuanto al marco cinematográfico, nos adentraremos en los 9 círculos a través del cortometraje Desparadisua creado expresamente para este espectáculo por el lasartearra Aitor Zarzuelo.*

**Adin guztiak, 12 urtetik gora** / Todos los públicos, a partir de 12 años. **Euskaraz/** Euskera. 2 €

**Sarreren salmenta emanaldiaren aurreko astelehenetik aurrera hasiko da.**
**La venta de entradas comenzará a partir del lunes anterior a la actuación.**
**LEKU MUGATUA**
**AFORO LIMITADO**
**Zigoitiko Zentro Soziokulturala**
**Centro sociocultural de Zigoitia**
Sala ZIGOITIA Aretoa
Bengolarra 1, Ondategi 01138
Tel.: 945 464 400
**www.zigoitia.eus**
Astelehenetik Ostiralera / De Lunes a Viernes
10.00 - 13.00 eta 16.30 - 20.00
Larunbata / Sábado
10.30 - 13.00 eta 17.30 - 22.00

**GOGOAN IZAN...**
- Ikuskizuna hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko dira ateak.
- Garaiz hasiko dira ikuskizunak. Ikusleei eta antzeleei enbarazu ez egitearren, saioa hasi ondoren ezingo da aretora sartu atsedenaldira arte, halakorik bada.
- Galarazita dago grabazioak nahiz argazkiak egitea, zuzendaritzaren baimenik gabe.
- Ezingo da ez jan ezta edan ere areto barruan.
- Pisuzko arrazoirik izanez gero, iragarritako ikuskizunak ordezterik izango dute antolatzaileek. Halakoetan, dirua itzuli edo sarrera trukatuko da.
- Erlojuak, telefonoak eta soinuak ateratzen duten bestelako tresnak itzali egin behar dira.
- Areto honek larrialdietarako plana du.

**RECUERDA.....**
- El acceso al público comienza 15 minutos antes de la hora de inicio de los espectáculos.
- Los espectáculos comenzarán puntualmente a la hora anunciada, no permitiéndose después el acceso a la sala, hasta el intermedio si lo hubiere.
- No está permitido realizar fotografías, filmaciones ni grabaciones, sin autorización expresa de la dirección.
- No está permitido el consumo de alimentos y bebidas en la sala.
- La organización se reserva el derecho a variar o suspender los espectáculos anunciados, cuando causas de fuerza mayor lo exijan. Esto llevará consigo la devolución del importe o cambio de la entrada.
- Se ruega a los /as espectadores /as que se aseguren de que su reloj, teléfono móvil y otros aparatos no emitan señales acústicas durante la función.
- Este local dispone de un plan de emergencia.

**ANTOLATZAILEA** ORGANIZA
Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala

**DIRUEMAILEAK** SUBVENCIONAN
Zigoitia — Berdintasunaren aldeko bidean
Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
Eusko Jaurlaritza
Gobierno Vasco
Vital
Fundación · Fundazioa

**LAGUNTZAILEA** COLABORA
Panta Rhei

**OTSAILAK 17 FEBRERO.** LARUNBATA / SÁBADO **- 19:00**

**ANTZERKIA / TEATRO**
**ORTZI ACOSTA: “ERREMENTERIA”**

“Patxi Errementaria” ipuin-giroan kontatutako istorio bat da, zirkuaren, gorputz-antzerkiaren eta zuzeneko musikaren bidez emana. Ikuskizun honen bidez, bi pertsonaiaren istorioa kontatzen da: deabrua eta errementaria. Sentimenduen zurrunbilo batean sartuta daude biak, etengabe elkarrekin gatazkan. Espero gabeko amaiera bat ekarriko du horrek.

*“Patxi Errementaria” es una historia narrada en un ambiente de cuenta cuentos, y representado a través del circo, el teatro corporal y la música en directo. Un espectáculo que relata la historia de dos personajes, un diablo y un herrero, envueltos en una espiral de sentimientos y en constante conflicto que se desencadenará en un final inesperado.*

**Adin guztiak, 3 urtetik gora** / Todos los públicos, a partir de 3 años. **Testu barik** / Sin texto. 45’

**OTSAILAK 24 FEBRERO.** LARUNBATA / SÁBADO **- 19:00**

**ANTZERKIA / TEATRO**
**MARKELINE ANTZERKI TALDEA “HAREAZKO IPUINAK”**

HAREAZKO IPUINAK emozioz beteriko lana da, eta bertan aita baten istorioa taularatzen dugu. Gure protagonistak, bere alaba gaixoak haurtzaroa gal ez dezan edozer gauza egingo du. Horretarako HAREAZKO IPUINAK asmatuko ditu, minbiziaren errealitateari pisua kentzeko. MARKELIÑEk istorioz eta irudimenez beteriko bidaia, baina batez ere, baikortasunez beteriko ikuskizuna proposatzen du.

*CUENTOS DE ARENA cuenta la historia de un padre desde la emoción y la sensibilidad. Un padre que tendrá que entretener y divertir a su hija enferma para que no se aburra, para que no se entristezca, para que siga siendo una niña. Tendrá que inventarse CUENTOS DE ARENA para quitar peso a la realidad de su hija enferma de cáncer. MARKELIÑE propone un viaje lleno de historias e imaginación, pero sobre todo cargado de optimismo.*

**Adin guztiak, 6 urtetik gora** / Todos los públicos, a partir de 6 años. **Testu barik** / Sin texto. **8 urtetik behera eta 60 urtetik gora** / menores de 18 años y mayores de 60 años: **5 €. 18 urtetik 60 urtera** / De 18 a 60 años: **8 €**

**MARTXOAK 04 MARZO.** IGANDEA / DOMINGO **- 19:00**

**GYPSI FESTA**
**LEIRE BOLUNBURU: “Hostoak dantzan”**

“Danza Duende”aren ospakizuna: (zure) naturarekin harremanetan egindako dantza bat, natura hori bera, bere zentzu guztietan eta zabalera osoan, ezagutzeko. Zatoz gurekin ospatzera!

*Celebración de Danza Duende, una danza de contacto con la (tu) naturaleza, explorándola con todos los sentidos y amplitud. Ven a celebrar con nosotras!*

**Adin guztiak** / Todas las edades.
**Kartela ikusi** / Ver cartel específico.

**MARTXOAK 07 M ARZO.** ASTEAZKENA / MIÉRCOLES **- 18:30**

**ZINEMA / CINE: “VOLAR” (94’)**

Bertha Gaztelumendik zuzendutako filma. Bertan, beren bizitzan genero indarkeria bizi izan duten bederatzi emakumek beren esperientzia eta ibilbidea kontatzen dute.

*Película dirigida por Bertha Gaztelumendi en la que nueve mujeres con un pasado de violencia de género relatan en primera persona sus experiencias y su recorrido vital.*

**Dohainik** / Gratuíto

**MARTXOAK 10 MARZO.** LARUNBATA / SÁBADO **- 19:00**

**BERTSO SAIOA: “EZ DA KASUALITATEA” bertso saio musikatua /bertso-saio con música**

“Ez da kasualitatea”ko lau bertsolariak eta gai-jartzailea emakumezkoak izaten dira. Hortik izenburua, oraindik, zoritxarrez, gizonezkoz osaturiko saioak baino ez baitira kasualitatez izaten. Bitartean, intentzio osoz antolatzen dugu “Ez da kasualitatea”: umorea, jolasa, gogoeta, emakumeon arteko konplizitatea, musika eta bertsoa uztartzen dituen saioa.

*Las protagonistas de “Ez da kasualitatea” son mujeres. De ahí viene el título (“No es casualidad”), porque por ahora, desgraciadamente, los bertso-saios que se organizan por casualidad, son únicamente los formados por hombres. Mientras tanto, organizamos “Ez da kasualitatea” con toda la intención: humor, juego, reflexión, complicidad entre mujeres, música y bertsos.*

**MARTXOAK 17 MARZO.** LARUNBATA / SÁBADO **- 19:00**

**ANTZERKIA / TEATRO**
**ANITA MARAVILLAS: “PINTTO”**

Pintto, galdutako txakurkume txiki bat da! Baina badago jendea ez dituena txakurrak gustuko… Nola iritsi da garbitegi honetara? Istorio bat, adiskidetasunaren esanahiari buruzkoa.

*Pintto es un pequeño cachorro perdido! Pero no a todo el mundo le gustan los perros.Como ha ido a parar a la lavandería? Una historia sobre el significado de la amistad.*

**Familiarra, 2 urtetik gora** / Familiar, a partir de 2 años
**Euskaraz** / Euskera.

**18 urtetik behera eta 60 urtetik gora /** Menores de 18 años y mayores de 60 años: **5 €. 18 urtetik 60 urtera /** De 18 a 60 años: **8 €**

**SALA ZIGOITIA ARETOA**

**MARTXOAK 24 MARZO.** LARUNBATA / SÁBADO **- 19:30**

**“ZIGOITIA DANTZAZ DANTZA” Zigoitiko “ Oketa alai” dantza taldea.**

Euskal dantza, datza taldeko argazki erakusketa

*Danzas vascas, exposición de fotos del grupo de danzas*

**Kartela ikusi** / Ver cartel específico.

**APIRILAK 07 ABRIL.** LARUNBATA / SÁBADO **- 19:00**

**ANTZERKIA / TEATRO**
**ERRE PRODUKZIOAK: “PLAY OUT”**

Carlos, bere lehenengo eleberriarekin arrakasta handia izan zuen idazle bat da. Baina azkenaldian ez du inspiraziorik aurkitzen, edo bere irakurleen babesik jasotzen. Bere editoreak (Koldok) eta emazteak (Norak) Carlosen jarrera aldatzeko saiakera egin dute, idazteari utzi baitio, eta bere interes bakarra Play Station-ean jolastea bihurtu baita. Izan ere, Carlos ziur dago bera hil ondoren bakarrik baloratuko duela bere lana jendeak. Pentsamendu horren berri eman dio Koldori, eta, horren ondoren, istripu bat izan, eta mundu guztiak hil egin dela pentsatuko du. Hilondoko aitortzak, sariak, berrargitalpenak eta salmentak biderkatuko dira gero, Koldo eta Noraren zorionerako. Zertarako prest zaude, arrakastaren truke? Hiltzeko gai izango zinateke?



Carlos es un escritor que cosechó un gran éxito con su primera novela pero que últimamente no encuentra la inspiración y el respaldo de los lectores. Su editor (Koldo) y su mujer (Nora) tratan de cambiar la actitud de Carlos, que se ha alejado de la escritura y cuyo único interés es jugar con la Play Station… y es que Carlos está convencido de que sólo valorarían su obra si estuviera muerto. Tras confesar esa reflexión a Koldo, sufre un accidente y todos le dan por muerto. Los reconocimientos póstumos, premios, reediciones y ventas se suceden para gloria de Koldo y de Nora. ¿Qué estarías dispuesto a hacer para triunfar? ¿Serías capaz de morirte?

**Helduak, 16 urtetik aurrera /** Personas adultas , a partir de 16 años. **Gaztelaniaz /** Castellano.

18 urtetik 60 urtera / De 18 a 60 años: **8 €**

**APIRILAK 13 ABRIL.** OSTIRALA/ VIERNES. **20:00 - 22:00**

**GERTUKO MAGIA DE CERCA (ibiltaria - itinerante)**

**DRAMAGIA: “HARRIDURA TXIKIAK - PEDACITOS DE ASOMBRO”**

Aldakortasuna eta inpaktua, begietatik zentimetro gutxitara, David Blancoren gertuko magiak bakarrik lor dezakeen moduan. Taldeen artean joan-etorrian, Davidek ikuskizun txikiak eskainiko ditu, eta ikusleek bertatik bertara biziko dituzte. Magia, letra larriz, dosi xehetan zerbitzatua. Inpaktu handiko jolasak dira, oso denbora gutxian gertatzen direnak, baina amaieran harridura handia sorrarazten dutenak, ikusleen arteko komentario ugari ekarriz. Giroa antzaldatu egiten da, magiaren poderioz, eta parte-hartzaileak miretsita geratzen dira, pozik, leku eta une egokian egon direlako.

*Versatilidad e impacto a centímetros de los ojos que solo puede ofrecer la magia aproximativa de David Blanco. Desplazándose entre los grupos, David realizará mini espectáculos que los espectadores vivirán en primera persona. Magia con mayúsculas servida en minúsculas dosis. Son juegos de grandísimo impacto que transcurren en un corto espacio de tiempo, pero la sensación que deja al finalizar es realmente de asombro y los asistentes no pueden parar de hacer comentarios acerca de lo que han visto. el ambiente se transforma por arte de magia y los asistentes se quedarán impactados y celebrando el haber estado en el lugar oportuno en el momento adecuado.*

**TABERNETAN:**
**Bengolarra, Artzegi eta Errekatxo.**
**Kartela ikusi /** Ver cartel específico.

**MAIATZAK 13 MAYO. IGANDEA/ DOMINGO - 12:30**

**POETAK MAIATZEAN / POETAS EN MAYO**
**Naioarteko poesia jaialdia / Festival internacional de poesía**

**Kartela ikusi** / Ver cartel específico

**Azoka** / Mercadillo